



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

OHIKO GALDERAK PREE5000

- 1- Bi familiako edo familia anitzeko eraikin bateko etxebizitza bat soilik aurkeztu daiteke PREE5000 laguntzen programara?

Ez. Euskadiko PREE5000 laguntzen programak eraikin osoetako jarduketak biltzen ditu soilik.

- 2- Egikaritu beharreko obrak bereizketa bat dakarren kasuan, eraikin hori aurkeztu daiteke?

Bai, subentzionagarria izan liteke oinarri gisa baliatzen den jarduketa-tipologia 1. motakoa bada (ingurutzailer teknikoaren hobekuntza), bizitzeko moduko azalera erabilgarriaren aldaketarik ez badakar, bizitzeko modukoak ez diren barrutietatik bizitzeko modukoetarako aldaketarik –edo alderantzizkorik– gertatzen ez bada, eta egungo egoeraren eta zaharberritutako egoeraren ziurtagiriak antzekoak badira (instalazio termikoen berdinak beharko lukete izan bi ziurtagirietan).

Laguntzaren kalkulua hasierako egoerako etxebizitzaren kopurua kontuan izanik kalkulatu da. Bereizketaren alde aurrekoa.

- 3- Aurkeztu daiteke berokuntzako ezein sistemarik edo ur beroa produzitzeko ezein sistemarik ez duen eraikin bat?

Ez. Produkzio termikoko sistemarik ez izateak eraikinak kontsumo termikorik ez izatea dakar, eta, horrenbestez, ezin izango da oinarriak eskatutako energia-aurrezpenik lortu.

Oinarrietan eskatutako energia-eskakizunak bete izanaren justifikazioa (energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoaren % 30 murriztea, eta CO₂ko emisioetan gutxienez letra bat eskalatzea) hasierako egoeraren eta zaharberritutako egoeraren energia-ziurtagiriaren bidez gauzatu da. Baina betiere eraikinak instalazio termikoak dituela frogatu badaiteke.

- 4- Zein jarduketa hartuko dira obra berrira asimilatutakotzat?

Oro har:

- **Etxebizitza hutsetan daudelako**, aurri-egoeran daudelako (deklaratua edo ez) edo bizigarritasun-baldintzarik ez dutelako egoera osasungaitzetan daudelako **bizigarritasun-obrak** helburu dituztenak.
- **Partzialki eraitsitako eraikinetan daudenak**, **betiere eraikin horiek barrutik hustuta badaude** edo forjatuen, egiturazko elementuen, fatxaden edo erantsitako bolumenen eraispen partziala edo osoa aurreikusten bada.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

- **Egiturazko kontsolidazio bat edo birgaikuntza integral bat** helburutzat dutenak. Birgaikuntza integraltzat hartzen dira eraikinaren barruko aldea partzialki edo osorik husten dutenak, kanpoko osaera orokorraren edo bolumetriaren funtsezko aldaketa bat eragiten dutenak, egitura berria edo egituraren konponketa partzial bat eskatzen dutenak, eta barruko banaketa berriak eta instalazio berriak inplikatzeko dituztenak.
- **Erabilera orokor edo partzialaren aldaketa bat** dakartenak, **bizitzeko moduko azalera erabilgarrian aldaketak dakartzatenak** (bizitzeko modukoak ez diren barrutiak –hala nola ukuiluak, lastategiak, eta abar– bizitzeko moduko barruti –edo alderantziz– bihurtzea, betiere Eraikuntzaren Kode Teknikoaren arabera).
- Gaur egun **erabilerarik gabe daudenak**, aurreko obra-geldialdi posible baten ondorioz eta helburutzat obra horiek amaitzea badute.

Guztiak ere, jarduketa osoko izaera dutenez, obra berriarekiko asimilagarritzat edo pareagarritzat hartuko dira, jarduketa ez-subentzionarioak izanik.

5- Subentzionarioak izango lirateke bizitzeko modukoa ez den barruti bat inguratzen duten itxituren gaineko jarduketak?

Oinarriek ezarritakoaren arabera, jarduketa subentzionarioak izango dira soilik eraikinaren ingurutzailerik termikoa egiten direnak, zeina bizitzeko barrutiak kanpo-girotik (airea, lurra edo beste eraikin bat) bereizten duten eraikinaren itxiturek osatzen duten, eta horrekin batera bizitzeko modukoak diren barrutiak bizitzeko modukoak ez diren erakundeak bereizten dituzten barne-banaketak, aldi berean kanpo-giroarekin harremanetan egongo direnak. Eta eraikinaren berokuntzako eta klimatizazioko energia-erabilpenaren murrizketa bat lortzen dutelarik.

Hau da, 2019ko Eraikuntzaren Kode Teknikoak proiektugileari ingurutzailerik termikoa barruan bizitzeko modukoak ez diren barrutiak hartzeko posibilitatea ematen badiu ere, PREE5000 laguntzen programari begira, **subentzionarioak izango dira soilik bizitzeko barrutiak kanpoaldetik bereizten dituzten eta bizitzeko moduko barrutiak bizitzeko modukoak ez diren erakundeak bereizten diren itxituren gaineko jarduketak.**

Adibide bat jartzeko: 2 solairuko baserri batean (ukuilu-erabilerarekin beheko solairuan eta etxebizitza-erabilerarekin lehenengo solairuan), non ingurutzailerik termikoa hobetzeko 1. motako jarduketa bat egin nahi den. Lehen solairuko fatxadak, estalkia eta forjatua soilik izango lirateke subentzionarioak. Behe-solairuko eta lurzoruko fatxadak ez lirateke subentzionarioak izango, ukuilua bizitzeko modukoa ez den barrutitzat hartuko bailitzateke Eraikuntzaren Kode Teknikoaren Energia Aurrezpenaren definizioaren arabera.

6- Konparagarriak izan behar dute egungo egoerari eta zaharberritutako egoerari buruzko eraikinaren energia-efizientziako ziurtagiriek?

Bai. Izan ere, oinarriek ezartzen dute jarduketa subentzionarioaren bidez lortu behar dela soilik energia-helburuak bete izanaren justifikazioa (% 30eko aurrezpena energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoan eta gutxienez letra bat eskalatzea CO₂ko emisioetan).


7- Zer ezaugarri bete behar dituzte konparagarriak diren energia-efizientziako ziurtagiriek?

Ziurtagiri konparagarritzat hartuko dira bizitzeko moduko azalera erabilgarria, eraikinaren inguratzaile termikoa osatzen duten itxituren azalera eta konposizioa, eta eraikinaren erabilera osoa edo partziala aldatzen ez dutenak.

Salbuespen gisa, kasuren batean, inguratzailea osatzen duten itxituren aldaketa txikiak onartu ahalko dira, hala nola egungo itxituren gaineko zuloak irekitzea edo aldatzea, edo bizitzeko moduko azalera aldatzea, betiere behar bezala justifikatuta badaude. Dela irisgarritasuna betetzeko, dela inguratzailea hobetzeko soluzio ez konbentzionalak proposatu direlako...

8- Bereizgabe subentzionagarria izango litzateke isolamendu termikoa estalkian edo estalpeko gunearen lurzoruan jartzea, betiere dagokion erabilera bizitzeko modukoa ez bada?

Bai, bi soluzioak subentzionagarriak izan daitezke, betiere lehenagoko eta ondorengo energia-ziurtagiriak modu berean definitzen badira. Biak *1. irudiaren* edo *2. irudiaren* arabera



Adibide bat. Behe-solairu bat eta estalpe bat dituen familia bakarreko etxebizitza batean, non behe-solairuak etxebizitza-erabilera duen eta estalpeko solairuak bizitzeko modukoa ez den erabilera duen, jarduketak ez duen aurreikusten gune horiek (kamarotea, lastategia, biltegia) bizitzeko moduko erabilera aldatzea eta estalki inklinatua teknikoki isolatzea planeatzen den, 2. irudiaren arabera.

Eraikinaren inguratzaile termikoa osatzen duten itxiturak egungo egoeraren eta zaharberitutako egoeraren energia-ziurtagirietan definitzeko garaian, arreta berezia jarri beharko da. Bi ziurtagirik estalki inklinatua izan beharko dute itxitura gisa, konparagarriak izan daitezken. Ezin izango da itxitura gisa estalpeko solairuaren forjatua (1. irudia) duen ziurtagiri bat eta estalki inklinatuarekin duen beste bat (2. irudia) aurkeztu.

9- Egungo egoeraren eta egoera zaharberituaren ziurtagiriak bertsio eta programa berarekin landu behar dira?

Bai. Energia-efizientziako energia-ziurtagiriak ministerioak onetsitako programetako edozeinekin landu ahalko dira, haien indarreko bertsioetan, baina biak ere programa berarekin eginak behar dute egon.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

<https://energia.gob.es/desarrollo/EficienciaEnergetica/CertificacionEnergetica/DocumentosReconocidos/Paginas/procedimientos-certificacion-proyecto-terminados.aspx>

10- Zer ulertzen da erabilera-aldaketatzat PREE5000 programari begira?

Erabilera-aldaketatzat ulertuko dira eta, horrenbestez, jarduketa subentzionagarri izateari utziko liokete honako hauek:

- a. Eraikinaren erabilera nagusiaren aldaketa dakartenak.
Adibidez, etxebizitzaren eraikin bat izatetik hotel bat edo landa-alojamendu bat izatera igarotzea.
- b. Eraikin baten barruan erabilera partzialen aldaketak dakartzatenak.
Adibidez, bizitegi-eraikin pribatu batean eraikineko zenbait solairutan apartamentu turistikoaren erabilera ezartzea proposatzen denean. Izan ere, apartamentu turistiko gisako erabilera, bizitegi publikotzat hartuko litzateke. Bi erabilera desberdineko eraikin batek 2 energia-ziurtagiri desberdin eskatzen ditu. Ziurtagiri bat bizitegi zati publikorako (beste erabilera batzuk) eta beste bat bizitegi zati pribaturako, eta, hori horrela, ezin izango lirateke ziurtagiriak alderatu hasierako egoerarekiko.

Erabilera partzialen aldaketak baimenduko dira soilik, betiere gune edo barruti horien erabilerak eraikinaren egungo erabilerari lotuta egon badira eta ez badaukate bizitzeko moduko azalera erabilgarriaren aldaketarik, bizitzeko modukoak ez diren barrutiak bizitzeko moduko egitean, edo alderantziz.

Adibide bat jartzeko, behe-solairuan ukuilu bat duen baserri batean (baserri tradizionalaren tipologiari estu lotutako erabilera), eta katastroan nekazaritza-erabilera gisa ageri badaiteke, etxebizitza-erabilera izatera igarotzea ahalbidetuko da ezarriko diren erabilerak bizitzeko modukoak ez diren barrutizat hartzen badira, hala nola garajeen, biltegien eta abarren kasuan, bizitzeko moduko azalera erabilgarriaren aldaketa gertatzen ez bada betiere. Izan ere, eta Eraikuntzaren Kode Teknikoaren Energia Aurrezpenaren arabera, bizitzeko modukoak ez diren barrutizat hartuko lirateke halaber.

11- Nahitaez aurkeztu eta erregistratu behar da Eraikinen Azterketa Teknikoaren txostena udalak hirigintza-lizentzia lortzeko eskatzen ez badu ere?

Bai. Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoari buruzko uztailaren 24ko 117/2018 DEKRETUAK honako hau ezartzen du bere lehenengo xedapen gehigarrian:

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Eraikinen Ikuskapen Teknikoa egin beharra, diru-laguntza publikoak eskuratuz gero. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren laguntzak eskatzeko, eraikinean kontserbatzeko, irisgarritasun unibertsala bermatzeko edo efizientzia energetikoa lortzeko lanak egin nahi dituzten jabeek eraikinaren ikuskapen tekniko egin beharko dute laguntzaren eskaera egin aurretik, eraikinaren adina gorabehera. Higiezina kokatuta dagoen udalerriko udalaren sarrera-erregistroaren zigilua eduki behar du eraikinaren ikuskapen teknikoak, dekretu honetan xedatutakoa betez.



Financiado por la Unión Europea - NextGenerationUE

- 12-** Irizpide sozialagatiko laguntza gehigarria bildu ahalko dira udal-babeseko erregimenen bat duten eraikinak, edo ondare-arloan kultura-ondasuntzat hartzen direnak, ondare-balioarekin, edo monumentu-multzo gisa deklaraturakoak?

Ez. Irizpide sozialagatiko laguntza gehigarria ez da ondare-babes edo babes artistiko-kulturalak dituzten eraikinentzat.

Irizpide sozialeko laguntzetara babes publikoko erregimen baten pean (Babes Ofizialeko Etxebizitza) behin betiko kalifikaturako eraikinak soilik aurkeztu ahalko dira, edo Hiri eta Landa Eremuak Berroneratzeko eta Berritzeko Guneetan kokatuta daudenak.

- 13-** Nola jakin dezaket nire udalerrria Erronka Demografikoa izeneko sarearen barruan dagoela?

Honako esteka hau kontsultatu dezakezu:

<https://www.idae.es/ayudas-y-financiacion/para-la-rehabilitacion-de-edificios/programa-pree-5000-rehabilitacion/municipios-de-reto-demografico>

Udalerrien zerrenda duen Excel fitxategia deskargatuz.

1. bertsioa 2022ko maiatz